

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 81. alea

DATA: 2026/09/25

GUREAN



NATURAN HAZTEN

Gure ikastola Uliako baso ederrean egoteak, momentu oro naturan murgilduta bizitzeko eta gozatzeko aukera ematen digu. Aste honetan, HHko ikasleak ondoko behiei jana ematera joan dira eta udazkenean sartu garenez, basoko altxor batzuk ere jaso dituzte. Urriaren 6an Baso Eskolarekin hasiko gara ikastolan eta HHko 2. mailakoak ere basora aterako direla da aurtengo berrikuntza. Proiektu honek garrantzi handia du gure egunerokoan.

ALTZAKO SERAFINES ARRIAGA JAIK - IRAILAREN 24TIK 27RA

Asteburu honetan, hainbat emanaldi eta ekintza antolatu dira Altza auzoko jaiak ospatzeko. Kirol lehiaketak, gaztetxoentzat jokoak, mota guztietako kontzertuak, txarangak, kale animazioak... Ondo pasatzeko aukera mordo bat aurkituko dituzue auzoan, gaurtik igandera arte! Anima zaitetzte!



EGITARAU OSOA:



GURE PLANAK

BAZENEKITEN...

- ... XXVI. Sagar Uzta izango dela Astigarragan asteburu honetan? Sagarraren jaia igandean da, baina gaur eta bihar ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Egitaraua ikusi nahi?



ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus